



(*) Itten: arrastua, pistia

>> KONTU KONTARI

Sasue bateko eskolan



Orain kontauko doguna duela hirurogei bat urte pasautakua da gure herrixan: egun baten herriko eskolako maisua sartu zan zortzi urteko mutikuen gelan, eta, tarimara igota, hauxe bota eben: *¡Que levanten la mano los que sepan hablar vasco!*

Preguntiairen aurrian, mutiko danak alkarrerri begira jarritta, isiltasuna nagusitu zan:
Zer gurako ete xok maisuak orainguan? Zertara ete xatok pregunta hori? –danak euren artian.

Maisuak: *Es una encuesta del Ministerio...*

Mutikuak orduan eta isillago, belarrixak tente eta iñor ikararik egin barik, badaezpada be.

Eta, halako baten, mutiko batek altxau eben eskua, erdi lotsatuta, gaizki edo debekauta eguen zeozer egittera fango balitz moduan. Beste danok berari begira, errespetu haundiz: *Nundik urten xok honek?* –jardun eben batek agopeian. Maisuak ikusi eben mutikuaren esku billurtixa eta burua jasota... apuntau eben bere kuadernuan... billur eta lotsa haundi barik: **UNO!**

Eta gela hartako berrogeita bost mutiko ingurutik hamarretik bederatzi euskaldunak ziran. Etara kontua!

>> ESAERA ZAHARRAK LOTU, EZAGUTU ETA EBALI

- | | |
|----------------------------|--|
| 1. Nagusi askoren astua | A. garirik ez eta galaots |
| 2. Esan, esan | B. ta bapez zerurako. Adios Martin Murubeko! |
| 3. Hemen xagon/k amillana* | C. abadiak mezetan |
| 4. Zazpi seme mundurako | D. gosiak hil |
| 5. Araotz | E. fraka zaharren billa dabillena |

* Amillana haizia: Gorbeixa aldetik datorren haizia



(*) Itten: arrastua, pistia

>> INGO XONAU (8)

UDAZKEN KOLORETAN

*'Oi, lur, oi, lur
oi, ene lur nerea...
oi, goiz eme,
parre gozoz ernea' ♪*

Amaia: Zer habil, Jon, kantore
hasi haiz, ala?

Jon: Ez orainddiok, baiña kantu
hau hain don ederra, berez-
berez hasten naun kantuan
neure kasa!

A: Ondo xagok hori, baiña
Benitok dakon kantuetatik eztok
eder bakarra, beste asko be
eder askuak dittuk!

J: Hiri, bat apartaittekotan, zein
gustaitten xan, ba?

A: 'Udazken koloretan', bikaiña
dok!

J: Bai, kantu horren doiñuak
geure barrura eruatzen gaixon,
hain don melankolikua!

A: Lagun baten despedidia dok, eta momentu horreik holakuak izaten dittuk, emoziño haundikuak, hunkigarrixak ...

J: Bai, baiña kontuz! Kantu hori ezton edozein momentutan entzutekua; izan be, isiltasuna, norberarekin egoteko
gogua eskaketan xon, agur bat don, udazkena dan bezalaxe. Horregatik, ni Lizardiren poemiarekin geraketan naun
Oi, lur, oi, lur... ♪ poz haundixagua emuten xostan!

A: Bai, baiña ez egidak esan azkenengo bersua tristia eztanik: '*bañan ... ezin: beeko behar goriak narama...agur,
soro, sagar, mendiak*'. Orainguan be hor geratu dok poetia bere gurarixa bete ezindda!

J: Bai, arrazoia dakon, Benitoren errepertorixuan melankonia, eziña, tristuria, eta holako emoziño asko agerketan
dittun, baiña horrek etxon esan gura ederrak eztiranik!



(Irakurri bedi testua aittaketan diran Benito Lerxtundiren kantu bixak entzunaz)

>> JAKINGARRIXA

Herriko zein auzotan dagoz 'ur' izenagaz osotutako baserri- eta leku-izen honeik?

1. Urgaiñena 2. Urbixa
3. Urbietia 4. Urgorriko arrua
5. Ugarkalde 6. Ugarte
7. Urzabaleta 8. Ubaozabal
9. Urgozo 10. Urzulo

- a. Larraña b. Zubillaga
- c. Berezaio d. Urrexola
- e. Araotz f. Olabarrieta
- g. Goribar h. Partzuergo
Nagusixa



(*) Itten: arrastua, pistia

>> INGO XONAU (9)

HIKALDIXA

**Jon:** Zer, Facebooken hago?**Amaia:** Bai!**J:** Eta zer esaten xon, ba?**A:** Hemen ñabik HIKALDIXAren inguruko barrixak irakurten.**J:** HIKALDIXA? Zer don hori?**A:** Zer esaten dostak? Eztakik zer dan? Aurten Euskaraldiaren partez Hikaldixa gertatu xuai! Fan zan astian hasi zuan. Zemendixaren (azarua) 26tik abenduaren 5era izango dok. Ez haiz enterau?**J:** Ba, etxakiñat ezer...**A:** Nun bizi haiz hi? Orain dala urte pare bat-edo herriko taldetxo bat hasi zuan emakumien hittatua edo noka barriz be modan jarteko ahalegiñian, badakik...**J:** A, bai, bai, akordaitten naun zeozekin!**A:** Ba, makiña bat gauza egin xuai harrezkero: hika egitten dauein berrogetaka emakumeri alkarrizketak, Ahotsak web-orrixan ikusi lleikienak, Oñatiko hittanua lantzeko liburutxua... eta oraintxe puntuan Oñatiko hika ikasteko aplikaziñua be atara xuai. Mobillerako aplikaziñua: "Appa Hi!"**J:** Hori don markia hori, eta ni enterau ez! Geldigorak dittun, gero!**A:** Bai, horixe! Ni be hasi nauk aplikaziñua probaitten, betik aditz igualekin bueltaka ñabik eta ondo etorriko xatak.**J:** A, ba neri be interesaitten xatan, hirekin askotan etxonat jakitten-eta, ondo nabillen ala ez.

Eta lehen aittatu donan Hikaldixa zer don ba? Geuk be zeozer egin biharko xonagu, ezton?

A: Ba, herrixan sortu dan girua ikusitta, Aiuntamentuak Hikaldixa martxan jartia erabagi xok. Danon artian hika egittia dok asmua, eta ez mutillen artian bakarrik, zuek bestela be egitten dozue-eta. Tokaren eta nokaren ebaleria pultzaketakok, "**Ingo xonau? Ingo xuau!**" txapak atara ditxuai. Eta txapia jantzitta dakonari hika egittia dok kontua, hamar egun horreittan. Igual dok ezpadakik be, belarrixa egitten fateko be balixo xok. Gaiñera, hikapoteuak eta hika bertso-saixua be organizau ditxuai. Zer pentsaitten xak?**J:** Asmo bikaiña, hi! Eta ni Andartora begira! Jo, ba esango dostan noiz dan hurrengo hikapoteua!**A:** Bai, mutil, geure artian ebalten doguna herrittar gehixagorekin ebaltia besterik eztok egin bihar, eta hala jente gehixago ezagutu eta beste harreman batzuk be egingo ditxuk. Etxak pentsaitten?**J:** Ederto! Ba neu be HIKALDIrako gertu ñagon!!



(*) Itten: arrastua, pistia

AURREKOMENDIKO — SARRAMENDI BASERRI INGURUKO — HIRU ITTURRI

1) Txikin-itturri

Torrealdetik gora doian porlan-pistia hartu eta hari segiu ezkerre Sarramendiko azpikaldeko soromuturreraño, puntukotxe bidiaren ezkeraldian erromaratxo bat topauko dozu; haren ostian dago, hain justu be, hain izen politta dakon itturria, *Txikin-itturri*, auzoko lehengo eskolia baiño berrehun bat metro lehenago.

Askaatxuan ura eta onduan kristalezko basua euki arren, ikusten da aspalditxo ezala ebaltzen, narraz betetako ondoko albergiak hala irakusten dauenez. Puxetarria be albergiaren inguruan dago, eta hori be antzeko egoeran: sasixak eta narrak hartuta, denpora askuan ifork ikutu eztauen seiñale.

Txikin-itturri lihorre garaixan agortu egitten da (izenak berak be holako zeozer adierazten dosku). Eta bertatik ura hartzen euen Sarramendi etxeak eta eskolako maisuak, 1923tik 1948ra han auzoko eskolia egon zan bittartian, eta kaletik etorten ziran basomutillak, mendizaliak, perretxiko-batzaillak, kazarixak eta abarrek.

Berbategixa: **Askaatxua:** pesebre pequeño;

Albergia: alberca, abrevadero;

Puxetarria: piedra donde se limpia la ropa.

Argibidiak: Sarramendiko Migelanjel Kortabarria.
Eskerrik asko!



Goixan,
Sarramendi
baserri inguruak
edurtuta.
Behian,
Txikin-itturri
itturria

>> JAKINGARRIXA

Zoritarrez leku-izenetan galera haundia suertau da azkeneko bi belaunaldi edo jeneraziñotan. Ia ba asmaitten dozuen zela esaten osten gure gurasuak leku-izen honeiri. Horretarako lotu oraingo izenak lehenagokuakin.

ORAINGUA

1. Triana / Mikel Aozaratzka kalia
2. Casablanca
3. Zahorreko kruzia
4. Potorrosin
5. Arrano txabolía (Aurrekomendin)
6. Atxulo
7. San Elias
8. Aloña
9. Urrexola aldera jotén dauen Aizkaiñeko ubidiaren urteeria
10. Uvia (V letria)

LEHENGUA

- A. Altzibar (paraje guztiari)
- B. Itsusabeko edo Atxuloko bentania
- C. Uxuxako bokia
- D. Goribar
- E. Lekunbarri
- F. Osiñurdin
- G. Gorgomendi edo Aloñamendi / Haitzondua edo Aloñako haitza
- H. Haranetako sendia (Urrexolatarrendako)
Andetako sendia (Araoztarrendako)
- I. Argileku
- J. Sandali



(*) Itten: arrastua, pistia

AURREKOMENDIKO — SARRAMENDI BASERRI INGURUKO — HIRU ITTURRI

2) Aixal-itturri

Torretxebarritik gora doian pistiari goixeneraiño jarraituta, *Koroso* baserrira ailegauko zara. Haxe pasau eta Antzuolako bidia hartu, eta, bostehun bat metro beheruntz egitten badozu, dana laun samarrian, hantxe eskumaldian, bide kontran, **Aixal-itturri** (Azeri-iturri) edo, mapetan agerketan dan letxe, *Korosoko itturrixa* ikusiko dozu. Handik behera egin ezkerre, berriz, Antzuolako Antiguako industrialdera urtengo dozu.

Itturrixan zagozela erreka-arruaren beste magalian, bi baserri agiri dira, *Arrandaritorre* eta *Arrandariozaeta* [Arrandei] izenekuak, Antzuolako Irmoegibarrena auzokuak, hain justu be. Malda horren goixenian Azaldegietako [Azaldittako] lautadia dago, famosua San Balandran egunian —agustuko Andra Mari egunaren hurrengo domekan— ospaketan zan Azaldittako egunagatik, inguruko herrixetako gazte jentia juntaiten zana erromerixa ospetsua egitteko.

Fotografixan ikusten danez, itturrixa bera oso kurioso dago, orainddiok ura hartzeko ebalten dan seiñale. Askia eta alberga haundixa dako, ura jarixo haundixan datorrela; lihorte gogorrek jotzen dittuenian be nekez agortuko dala esan gura dau horrek. Bere garaixan puxetarri bat be euki ei eben, baiña gaur egunian ezta haren arrastorik agiri. Sarramendikuak, euren etxeko ur-depositua gastauaz xoianian, **Aixal-itturrira** faten ziran uretara, iri paria lotu eta burdixan barrikak hartuta.

Argibidiak: Sarramendiko Migelanjel Kortabarria.
Eskerrik asko!



Goixan,
Koroso
baserri
inguruak,
Argilekutik
ikusitta.
Ezkerrian,
Aixal-itturri.

>> JAKINGARRIXA

Zoritxarrez, leku-izenetan galera haundixa suertau da azkeneko bi belaunaldi edo jeneraziñotan. Ia, ba, asmaten dozu en zela esaten osten gure gurasuak leku-izen honeiri. Horretarako lotu oraingo izenak lehenagokuakin.

ORAINGUA

1. Upaingo mahastixak
2. Larraña auzoko Pullangua, Sesiñena eta Erbiña baserrixak
3. Arranoaitz
4. San Lorentzo auzua
5. Olakua auzoa
6. Madalena auzua
7. Lizar-etxe (Olabarrieta)
8. Oñatira begira dagozen Aloñako zelaixak
9. Martzelino Zelaia kalia
10. Trianako sarrera ingurua

LEHENGUA

- A. Arrandaitz
- B. Narria goikua
- C. Balentzategi / Santxolopeztegi / Txantxilpilizte(g)i
- D. Orueta auzua
- E. Aloñako hegixa
- F. Portalekua
- G. Jardiñazpi
- H. Narria behekoa
- I. Auzotxo
- J. Enparantza



(*) Itten: arrastua, pistia

AURREKOMENDIKO — SARRAMENDI BASERRI INGURUKO — HIRU ITTURRI

3) Albitxudi-itturri (Albitxiko itturrixa)

Itturrixa topaitteko, kaletik urten eta, Torretxebarritik gora doian pistiari jarraituta, Sarramendi baserriraiño jo; han zagozela, haren ondoko ugaratxuen istinga¹ ondora fan, eta handik Korosbizkar [Koixkar] Garaiko aldera doian basobidia hartu eta jaisten zoiatzela une batian behera begiratuta, beheko arruan, ziharo ezlekuan, uralita bat bistaratuko da. Hantxe dago **Albitxudi-itturri**. Izena basuak emuten xao, izan be bixak dira Albitxudi. Garai batian sendatxo bat baeguen itturiraiño; gaurko egunian, berriz, arimarik ibiltten eztalako, oso zikin eta ixixa desagertuta dago.

Itturriak askia eta bere albergia dako, uralitaz tapauta esandako moduan, eta ura jasoteko bonbatxo bat be bai, Sarramendira eruateko ebalten dana. Garai baten, puxetarri bat be baekuan; gaur egunian, ebalerarik emuten etxakolako, oolduixak hartuta eta basuarekin bat egindda agiri da. Fama oneko itturrixa da, ur oso hotzak urteten dauelako eta eztalako sekula agorketan. Sarramendikuak ura hartzeko eta puxetia joteko —erropia astinketako²— ebalten euen; eta behetarrak, ostera, ura hartzeko, batez be, euren baso-sailletara etorten ziranian suegurretara, idatara, edota, bedarretara.

Argibidiak: Sarramendiko Migelanjel Kortabarria.
Eskerrik asko!

¹ txantxikuen putzua

² aklaraitteko



Goixan, Koixkar garaikua baserrixa, Albitxudi itturritik ikusitta. Ezkerrian, Albitxudiko albergia.

>> JAKINGARRIXA

Zoritxarrez, leku-izenetan galera haundixa suertau da azkeneko bi belaunaldi edo jeneraziñotan. Ia, ba, asmaitten dozuen zela esaten osten gure gurasuak leku-izen honeiri. Horretarako lotu oraingo izenak lehenagokuakin.

ORAINGUA

1. Kurtzebarri (mendixa)
2. Peña del diablo
3. Sanpru
4. Kale Zaharreko beheko partia
5. Olako torria
6. Olaitturri
7. Sancti Spiritus Unibersidadia eta zubixa arteko gunia
8. Kantue zapaterixia
9. Urgain eskola ingurua
10. (Jose) Moiaua kalia

LEHENGUA

- A. Oraitturri
- B. Arboleda txikiña
- C. Kolejialde
- D. Artzain kale
- E. Ziuntza / Ziontza
- F. Aitzabal
- G. Mediki presia
- H. Bidaurreto torria
- I. Naparreneko kantoia
- J. Elorregi



(*) Itten: arrastua, pistia

>> JAKINGARRIXA

PARTILEKUAK



Baserriko emakumiak etxerako bidian.
Argk.: Indalecio Ojanguren (Gipuzkoako Foru Aldundiko Artxibo Orokorra)

Aurreko gizaldiko hirurogeigarren hamarkadiaren erdi ingurura arte behintzat, edozein gauza karriau bihar zanian, normalena zan astuagaz etortia baserritik kalera.

Esnedunak etorten ziran egunero esnia partittera eta, zapatuetan, auzo danetako emakumiak euren astotxuakin etxeko jenerua plazara, edota, kaleko etxietara ekartera; eta, bueltan, etxian falta zana eruatera: kafia zala, azukarra, olixua, garbantzua, txokolata... Eginkizun hori emakumiena izaten zan aixkomente.

Kalian, leku seiñalauak egozen astuak lotzeko, asto-tokixak izenekuak, gaur eguneko automobilen aparkalekuen funtziñua egitten eueiña, eta ezagunak ziran horman zihar hainbat argoilla ekuailako jarritta zeregin horretarako: Arantzazu eta Araotz aldetik etozeiñendako Diortxuena parian; aurreko mendittarrendako Zumeltzegi eta San Anton kalietan; larrañatar eta olabartarrendako Santa Mariñan eta Gerriko kantoian; urrexolatar eta garagaltzarrendako, berriz, berdura-plaza ostian.

Zapato goizetan goiz samar agertuko ziran baserrittarrak kalia, goiza errekaduetan pasau eta eguerdi partian, kaleko lanak egindakuan, auzo bakoitzekuak alkartu eta berriz etxerako bidia hartzeko. Aurrekomendiko zazpi baserrittakuak juntaiten ziran etxera fateko: asto-kargak ondo lotu eta danak illaran behetik gora abixaiten

ziran. Kaletik zazpi asto abixaiten baziran, bidian zihar bakoitza bere baserriko bidekurtzera ailegaiten zanian, partiu egitten ziran; horregatik puntu horreiri **partilekuak** esaten xaten, hau da, etxerunzkuan norberaren etxera fateko bidekurtzian pertsonak apartaiten edo banaketan ziran lekuak, oso puntu zihatzak eta jakiñak.

Honeitxek ziran behetik gora goiazela aurrekomendittarren partilekuak:

- Lehenengua, **Olabarriko partilekua**: Leku hartan eskumaldera Olabarriko etxekoandriak egitten eben, eta ezkerretik gora beste seirak.
- Bigarrena, **Unetako partilekua**: Han ezkerretik gora Sarramendikuak, Koixkar bikuak eta Lizargaratekuak jotzen euen, eta eskumara Korosokuak eta Eltzikortakuak.
- Hirugarrena, **Koixkargo partilekua**: Puntu hartan ezkerretara Koixkar bikuak eta eskumara Sarramendi eta Lizargaratekuak faten ziran. Leku horri **Koixkargo kale-bidia** be esaten xakon.

Seguru gagoz herriko beste auzo danetan be partilekuak egongo zirala, leku seiñalauak euren izen berezi eta guzti, mereziuko leuke leku eta izen horreik danak jasotia gure aurrekuen ibillerak ezaguketako.

Argibidiak: Sarramendiko Migelanjel Kortabarria. Eskerrik asko!



(*) Itten: arrastua, pista

>> PASADIZUA

¿Aquí, para ir a calle Toledo?



“Eta ni han egoten nintzen, e, San Migeletan zaldixori eruen-eta, Migel Usako ta tio Bittor lagun haundixak ziren, bata Ameriketara egon zan, hanka egindda hemendik, eta, bestia kartzelan, eta han bazkaritten gegontzela orduko kontuak buelta emun eta zerien, eta ni mutikuak, ba, entzun egitten nostien zertzuk esaten zittuain orduen. Eta gero zerera etorrirta, hemen komerziuen batak, eta bestiak be fabrikantia-edo zera, eta bestie-ta, Madrillera fan zirela egun baten entzunda dakot berari, zerari; eta Madrillen, e, preguntau xaue zeren bateri, aguazillen bateri:

- ¿Aquí, para ir a calle Toledo?
- Ahí tienen ustedes el metro...
- ¿El metro? El metro hemen xakuagu poltsikuan, baiña zeozer egitten xuagu honegaz!”


Alkarrizketia: Kepa Elortza

Pasarte osua entzun gura izan ezker, jo hona: <https://ahotsak.eus/aretxabaleta/pasarteak/are-036-004/>

>> BERBA KRUZAUAK

Osatu tablia definiziñuen laguntzaiagaz, kontuan izanda berba danak -leku osagaixa izan bihar daueilla:

- | | |
|--|----------------------------------|
| 1. Txirikilletan egitteko lekua | 7. Eguzkixak urtetan dauen lekua |
| 2. Komuna. Ipurdixa | 8. Kamioiak kargaitteko lekua |
| 3. Astuakin baserrira oiazeilla apartaiten ziran lekua | 9. Larratokixa |
| 4. Bolotan egitteko lekua | 10. Pausalekua |
| 5. Susaak dagoen tokixa | 11. Agertokixa. Taula. |
| 6. Buruhausteia | 12.- Ostatua. Pentsiñua |



Erantzunak: 1.- Txirikilletan (top.) 2.- Kalkalekua 3.- Partilekua 4.- Bolalekua 5.- Susalekua 6.- Bielekua 7.- Argilekua (top.) 8.- Kargalekua 9.- Bazkalekua 10.- Egonlekua 11.- Jokalekua 12.- Lolekua



(*) Itten: arrastua, pistia

>> HAUSNARRIAN

Hizkuntza ugarittasuna gure herrixan

MOU ETA ANDER

Ander: Kaixo, Mou!

Mou: Kaixo!

A: Zu nungua zara?

M: Ni? Senegalgua, Louga Niomre herrikua. Behin esan notsun, ba!

A: Bai, bai, baiña enintzan akordaitten, barkatu! Eta zuk zenbat hizkuntza egitten dozu?

M: Bakarren batzuk bai, bizitzak hala eskatuta: wólofera, nere ama hizkuntza; frantsesa, Senegalgo hizkuntza ofiziala; gaztelania, Espaiñian zihar ikasittakua; ingelesa pittin bat, hori be lagun artian ikasittakua, eta orain euskeriarekin nabil.

A: Jolinas! Zu gure aldian poliglotia zara!

M: Poli zer? Zer esan gura dau horrek?

A: Hizkuntza asko berbetan dakizula, besterik ez!

M: Bai, baiña biharrak eragindda, ez kapritxoz. Bizirik irauteko gurataez ikasi bihar izan dittut bizi izan naizen lekuetako hizkuntzak.

A: Eta zela ikasi ditzuzu hizkuntza horreik danak?

M: Wólofera etxian eta herrixan; frantsesa eskolan; gaztelania kalia, haruntz eta honuntz ibilitta, eta euskeria euskaltegian.

A: Ondo, ondo. Eta hemengo hizkuntziarekin zer moduz moldaitten zara?

M: Uf! Defenditeteo lain jakin arren, zailla egitten xat!

A: Zer, ba?

M: Kontauko dotsut: aspalditxo honetan enaiz kalia asko ibiltten, orduan eztot jente askorik ikusten. Urteten dotenian, jente gehixenak erderaz egitten dost, eta euskeraz egitten dostein apurrak, abixaran egitten dostai berba: xixauxau! Eta nik eztot tautik be entenditten, eta hala ezin, ba, ikasi!

A: **Bueno, Mou, trankil egon, nere lagun danairi esango dostet zurekin, edota, euskeria ikasten dabillen beste edozeiñekin berba egitten daueiñian, SOSEGUZ ETA GARBI BERBA EGITTEKO; ikasten dabillenari pazientzia haundixaz lagunduta bakarrik egingo dogu-eta herri euskalduna.**

M: Eskerrik asko, Ander!

A: Ez horregatik, Mou, hori nere kontu!



wolof_euskara

	HASTEKO
Nakamul!	Kaixo!
Diam nga fanan!	Egun on!
Diam nga yendou!	Arratsalde on!
Naka gudi bi!	Gabon!
Fananal ak diam!	Ondo lo egin!
Sula nekhe...	Mesedez...
Dieredief!	Eskerrik asko!
Waw	Bai
Dedet	Ez
Ba benem!	Agur!
Bethi kanam!	Gero arte!
Nan nga def?	Zer moduz?
Bakhna!	Ondo!
Bakhna lol!	Oso ondo!
Bakhoul!	Gaizki!
Tanena!	Erdipurdi!
Yow nak?	Eta zu?
Woy sama ndey!	Ai ama!
Man mai Antton	Ni Antton naiz
Nan nga toudou?	Zein da zure izena?
Maitane la toudou	Nire izena Maitane da
Gnata at nga am?	Zenbat urte ditzuzu?
Gnar foukk ak djirom gnet la am. Yow nak?	Nik 28 urte ditut. Eta zuk?
Fo thioissano?	Nongoa zara?
Man Basauri la thioissano	Ni Basaurikoa naiz
Buba wa Senegal la	Buba Senegalekoa da
Fo dekk?	Non bizi zara?
Aretxabaleta la dekk	Ni Aretxabaletan bizi naiz
Sama mag Elgeta la dekk	Nire anaia Elgetan bizi da
Deg na Basque?	Badakizu euskaraz?
Waw, touti	Bai, pixka bat!
Touti, damay diang	Gutxi, ikasten ari naiz
Fanla bibliotek bi nekk?	Non dago liburutegia?
Wetou Penthi bi	Udaletxearen ondoan
Fanla wanak bi nekk?	Non dago komuna?
Sa kanam	Dena zuzen
Sa ndey dior.	Eskuman
Sa thiamogn	Ezkerrean
Thi kaw	Goian
Thi souf	Behean
Thi kanam	Aurrean
Sa guinaw	Atzean

Wólofera-Euskara hiztegia



(*) Itten: arrastua, pistia

80. numerua

Atzo goizian hasi giñalakuan, eta, oraingurekin, 80. numerora edo zenbakira ailegau gara, aurreikuspen eta ezintasun guztiak gaindittuta. Orduan, zelebrau degigun esaerako errementarixaren moduan, gastuai begiratu barik:



Olagizona

*"Olagizonak eta errementarixak,
begixak baltzak eta hagiñak zurixak,
alperrik egingo dau larogei garixak,
ardaua erango dau errementaerixak"*



Errementarixa

>> TXISTE KONTARI

Piparpoteko melakotoia

Sartu zan behin herritar bat herriko janari-denda batian errekaduetan eta, holaxe hasi ziran barriketan dendarixa eta bixak:

D: Zer jarriko dotsut, ba?

H: Jarri egidazu garbantzua,... txixara-zopia, kullaratik irrist egitten dauena,... olixua,... eta gatza.

D: Ondo da. Zer, domekan garbantzua eta okela gixaua ifintteko asmua ala?

H: Bai, ondo igarri dostazu! A, ixixa ahaztu xat, tomatia be biharko neke okeliarekin ifintteko.

D: Eta pipar gorririk edo?

H: Baitta! Ifiñi dozena erdi bat.

D: Besterik?

H: Bai, postrerako ifiñi **piparpoteko melakotoia**, eder askua da-eta!

D: Eee!!!???



Dendarixa

>> ASMAU

Zirrindara honetako berbetatik zeintzuk eztira insektuak?

ezpatia
mandeulixa
burduntzixa
ahuntzerlia

arkakusua
zirauna
labatxurrixa
erlabixua

kaparra
labezomorrua
Arabako zezena
txindurrixa

eulixa
amarratza edo armiarmia
erlia
harra

Berbatagixak: ezpatia (tábano); arkakusua (pulga); zirauna (lución, ciega); kaparra (garrapata); labezomorrua (cucaracha); mandeulixa (tábano grande); burduntzixa (libélula); labatxurrixa (grillo); Arabako zezena = arkanbelea (ciervo volante); ahuntzerlia (avispa); erlabixua (avispa grande); txindurrixa (hormiga); harra (gusano); amarratza edo armiarmia (araña); eulixa (mosca); erlia (abeja).

Erantzuna: zirauna, amarratza edo armiarmia, kaparra eta harra.